

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

206

IRAGARKIA, 2025eko abenduaren 30ekoa, Deskarbonizazioko zuzendariena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak Arabako Lurralde Historikoko zenbait eguzki-planta fotovoltaikotarako («Solaria Zierbena Solar 1», «Solaria Zierbena Solar 5», «Solaria Zierbena Solar 6», «Solaria Zierbena Solar 7», «Solaria Zierbena Solar 8», «Solaria Zierbena Solar 9», «Solaria Zierbena Solar 10», «Solaria Zierbena Solar 11», «Solaria Zierbena Solar 12», «Solaria Zierbena Solar 13», «Solaria Zierbena Solar 14», «Solaria Zierbena Solar 17», «Solaria Zierbena Solar 18», «Solaria Zierbena Solar 21», «Solaria Zierbena Solar 22», «Solaria Zierbena Solar 23», «Solaria Zierbena Solar 24», «Solaria Zierbena Solar 25» eta «Solaria Zierbena Solar 29») eta haiekin lotutako Arabako eta Bizkaiko lurralde historikoetako ebakuazio-azpiegituretarako.

Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan eta Sektore Elektroari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan aurreikusitako ondoretarako, bat etorrita Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jarri dira bai banakako 19 proiektuak, bai proiektu horietarako eta haiei lotutako ebakuazio-azpiegitura komunerako era bateratuan egindako ingurumen-inpaktuaren azterketa.

- Eskatzailea: Solaria Eguzki Sorkuntza SM (IFKa: B72752959).
- Xedea: energia elektrikoa sortzea eguzki-energia fotovoltaikoaren teknologia berriztagarriaren bidez (b1.1).
- Eskaeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
- Energia garraio-sarera ebakutzeko tokia: «Zierbena» 400 kV-eko azpiestazioa, Red Eléctrica de España SArena. Sustatzaileak iragarki honetan azaltzen diren planta guztietako sarbide eta konexioetarako baimenak dauzka.

19 proiektuek ebakuazio-azpiegiturak partekatzen dituzte sustatzaile beraren «Solaria Zierbena Solar 2» (01GEY 202300033 espediente) proiektuarekin, «Solaria Zierbena Solar 3» (01GEY 202300034 espediente) proiektuarekin eta «Solaria Zierbena Solar 4» (01GEY 202300035 espediente) proiektuarekin, sortutako energia Red Eléctrica de España SAren «Zierbena» 400 kV-eko azpiestaziora ebakutzeko, bai eta Estatuko Administrazio Orokorrak izapidetutako sustatzaile beraren beste proiektu fotovoltaiko batzuekin ere.

Jendaurrean jarritako 19 proiektuen gaineko espedienteak 4 taldetan batu dira, haien kokapenaren eta partekatutako ebakuazio-azpiegiturekin duten konexioaren arabera.

– «Gaubea – Kuartango» taldea (Gaubea, Kuartango, Erriberagoitia eta Iruña Oka udal-mugar-teak, Arabako Lurralde Historikoan).

Horietako bakoitzarekin lotutako instalazio eta espediente hauek biltzen ditu:

Espedientea	Eguzki-planta	Azpiestazioa	Linea elektrikoa
01GEY 202400014	«Solaria Zierbena Solar 8» (49,895 MW, 75,94 ha) (Gaubea)	«Gaubea» 30/220 kV (Gaubea)	Gaubea-Berozada 220 kV-eko aireko linea. SE Gaubea – MAG1 Lotura tartea. (Gaubea)
01GEY 202400018	«Solaria Zierbena Solar 14» (49,895 MW, 72,79 ha) (Kuartango)	-	30 kV-eko aireko eta lurpeko linea. Plantaren sezkionamendu-zentroa – Iruña azpiestazioa (Kuartango, Erriberagoitia, Iruña Oka)

– «Lantarón» taldea (Gaubea, Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia eta Armiñón udal-mugar-teak, Arabako Lurralde Historikoan).

Horietako bakoitzarekin lotutako instalazio eta espediente hauek biltzen ditu:

Espedientea	Eguzki-planta	Azpiestazioa	Linea elektrikoa
01GEY 202400025	«Solaria Zierbena Solar 9» (49,895 MW, 52,86 ha) (Gaubea eta Lantarón)	«Berozada» 30/220 kV (Gaubea)	220 kV-eko aireko linea, SE Berozada - MAG3 Lotura tartea. (Gaubea eta Lantarón)
01GEY 202400015	«Solaria Zierbena Solar 10» (49,895 MW, 63,29 ha) (Gaubea)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkionamendu-zentroa – Lantarón azpiestazioa. (Lantarón)
01GEY 202400024	«Solaria Zierbena Solar 11» (49,895 MW, 53,16 ha) (Lantarón)	«Lantarón» 30/220 kV 220/400 kV (Lantarón)	400 kV-eko aireko linea, SE Lantarón – T-B Lotura tartea. (Lantarón, Erriberagoitia, Erriberabeitia eta Armiñón)
01GEY 202400017	«Solaria Zierbena Solar 12» (49,895 MW, 88,93 ha) (Añana eta Gaubea)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkionamendu-zentroa – Berozada azpiestazioa (Gaubea)
01GEY 202400026	«Solaria Zierbena Solar 13» (49,895 MW, 61,46 ha) (Lantarón)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkionamendu-zentroa – Lantarón azpiestazioa (Lantarón)

– «Erriberabeitia» taldea (Erriberagoitia, Iruña Oka, Armiñón, Erriberabeitia, Berantevilla, eta Zanbrana udal-mugar-teak, Arabako Lurralde Historikoan).

Horietako bakoitzarekin lotutako instalazio eta espediente hauek biltzen ditu:

Espedientea	Eguzki-planta	Azpiestazioa	Linea elektrikoa
01GEY 202400016	«Solaria Zierbena Solar 6» (38,155 MW, 24,22 ha) (Erriberagoitia)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkionamendu-zentroa – Santuste azpiestazioa. (Erriberagoitia)
01GEY 202400023	«Solaria Zierbena Solar 7» (49,895 MW, 38,75 ha) (Erriberagoitia)	«Santuste» 30/220 kV 220/400 kV (Erriberagoitia)	220/400 kV-eko aireko linea, C Lotura-Santuste, Santuste- D Lotura tartea. (Erriberagoitia)

Espedientea	Eguzki-planta	Azpiestazioa	Linea elektrikoa
01GEY 202400022	«Solaria Zierbena Solar 5» (49,895 MW, 84,48 ha) (Erriberagoitia)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkiomendu-zentroa – Iruña azpiestazioa. (Erriberagoitia eta Iruña Oka)
01GEY 202400034	«Solaria Zierbena Solar 29» (49,895 MW, 78,14 ha) (Iruña Oka)	«Iruña» 30/220 kV (Iruña Oka)	220 kV-eko aireko eta lurpeko linea, SE Iruña - B-1 Bidebanatzea tartea. (Iruña Oka eta Erriberagoitia)
01GEY 202400028	«Solaria Zierbena Solar 17» (49,895 MW, 52,78 ha) (Armiñón)	«Berantevilla» 30/220 kV (Armiñón)	220 kV-eko aireko linea, SE Berantevilla - T-A Lotura tartea. (Armiñón eta Erriberabeitia)
01GEY 202400030	«Solaria Zierbena Solar 21» (49,895 MW, 78,02 ha) (Zambrana eta Berantevilla)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkiomendu-zentroa – Berantevilla azpiestazioa. (Zambrana, Berantevilla eta Armiñón)
01GEY 202400020	«Solaria Zierbena Solar 18» (49,895 MW, 69,53 ha) (Armiñón, Erriberabeitia eta Erriberagoitia)	«Somillo» 30/220 kV (Erriberabeitia)	-

– «Ipar-Gasteiz» taldea (Zigoitia, Zuia, Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundia udal-mugarteak, Arabako Lurralde Historikoan).

Horietako bakoitzarekin lotutako instalazio eta espediente hauek biltzen ditu:

Espedientea	Eguzki-planta	Azpiestazioa	Linea elektrikoa
01GEY 202400032	«Solaria Zierbena Solar 25» (35,22 MW, 27,98 ha) (Zigoitia)	«Goepgi» * 30/220 kV 220/400 kV (Zigoitia)	220 kV-eko aireko eta lurpeko linea, SE Goepgi- ZF Bidebanatzea tartea. (Zigoitia eta Zuia)
01GEY 202400033	«Solaria Zierbena Solar 24» (49,895 MW, 57,77 ha) (Zigoitia)	«Ziriano» 30/220 kV (Zigoitia)	220 kV-eko aireko linea, SE Ziriano – GOP Lotura tartea. (Zigoitia)
01GEY 202400013	«Solaria Zierbena Solar 1» (49,895 MW, 67,83 ha) (Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundia)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkiomendu-zentroa – Ziriano azpiestazioa. (Arratzua-Ubarrundia eta Zigoitia)
01GEY 202400021	«Solaria Zierbena Solar 22» (49,895 MW, 67,08 ha) (Vitoria-Gasteiz)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkiomendu-zentroa – Ziriano azpiestazioa. (Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia)
01GEY 202400031	«Solaria Zierbena Solar 23» (49,895 MW, 55,07 ha) (Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia)	-	30 kV-eko lurpeko linea. Plantaren sezkiomendu-zentroa – Ziriano azpiestazioa. (Zigoitia)

* Proiektu aldatua

– Ebakuazio-azpiegitura komuna (Erriberabeitia, Armiñón, Erriberagoitia, Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz, Zuia, Urkabustaiz, Amurrio, Aiara eta Okondo udal-mugarteetan, Arabako Lurralde Historikoan, eta Gordexola, Güeñes, Galdames eta Abanto y Ciérvena-Abanto Zierbena udal-mugarteetan, Bizkaiko Lurralde Historikoan).

Sustatzaileak proiektu alternatibo berri bat aurkeztu du, garraio-sareko SET Zierbena 400 kV-eko lotunean emandako sarbide- eta konexio-baimena duten proiektu fotovoltaiakoek partekatzen duten ebakuazio-linearena, 01GEY 202500010 espedientean egindako jendaurreko informazioaren eta

konsulten izapideetan (2025eko ekainaren 17ko EHAA, 113. zk.; 2025eko uztailaren 2ko ALHAO, 74. zk.; eta 2025eko ekainaren 25eko BAO, 120. zk.) bildutako informazioan oinarrituta:

«SE Ribera-SE Somillo 220 kV-eko, SE Somillo-SE Arganzon 220 kV-eko, SE Arganzon-SE Santuste 220 kV-eko, SE Santuste-SE Luzuero 400 kV-eko aireko eta lurpeko linea, SE Ribera-SE Luzuero eta SE Somillo-A Lotura tarteak».

«Ribera», «Luzuero» eta «Arganzon» azpiestazioak ez dira jendaurrean jartzeko izapide honen xede.

Proiektu fotovoltaiako hauen alde aurreko administrazio-baimena Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzarena da, eta jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du. Proiektu guztien ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera jarriko da jendaurrean, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 36. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Ebakuazio-azpiegitura komunaren alde aurreko administrazio-baimena Deskarbonizazio Zuzendaritzaren eskumena da, bi lurralde historikori eragiten baitie.

Jendaurrean jartzen da, interesdunek eta herritarrek proiektuei buruzko dokumentazioa aztertzei aukera izan dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralen kalea 23, Bilbo) eta Interneteko www.euskadi.eus web-orrialdean, Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazio Publikoa azpiatalean (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>).

Iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 egun balioduneko epea egongo da egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren Arabako eta Bizkaiko lurralde-ordezkaritzei aurkeztu beharko zaizkie alegazioak, dela idatziz, erregistro orokorrean, dela EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikorokorrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>). Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren batean ere aurkeztu ahal izango dira.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko entitateak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, jendaurrean jartzeko izapide honetan alegazioren bat jarri nahi izanez gero, horietako edozeinek nahitaez aurkeztu beharko du bitarteko elektronikoen bidez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 30a.

Deskarbonizazio zuzendaria,
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.